



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2021EKO URTARRILAREN 22KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA KOMUNITATEARENTZAKO FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA ARABA, GIPIZKOA ETA BIZKAIKO ZAINZAREN ESPARRUAN (HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK; DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTROAK ETA ZERBITZUAK; ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA; TELELAGUNTZA; ESKU-HARTZE SOZIALA) 2021EKO URTARRILAREN 26 ETA MARTXOAREN 4RAKO DEITUTAKO GREBAN.

ESK sindikatuak greba deitu du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zaintza profesionalizatuen sektorean, 2021eko urtarrilaren 26 eta martxoaren 4rako, 0.00etatik 24 orduak arte, nahiz eta gaueko lanaldia duten langileek greba euren lanaldiarekin batera hasiko duten. Honako hauei eragino die grebak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko edozein erakunde publikok emandako oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta espezializatuak.
- Etxeko lanaren araubide berezira atxikitako langileak.
- Desgaitasunari arreta emateko zentroak eta zerbitzuak
- Hirugarren adinekoen zentroak eta zerbitzuak
- Telelaguntza-zerbitzuak
- Etxez etxeko Laguntza zerbitzua
- Esku-Hartze Sozialeko zentro eta zerbitzuak

Greba deitu duen sindikatuaren hitzetan, grebaren helburua hurrengoa da: *zaintza zerbitzuko langilegoak jasaten dituen prekarietate eta murrizketak salatu, zaintza eremuko zerbitzu publiko integralaren eraketa aldarrikatu eta zaintza-lan guztiak bermatuko dituen 10.000 lanpostu berriren aldarria.*

LAB sindikatuak greba deialdia egin du Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko zein pribatuko gizarte-zerbitzuen sektorean, 2021eko urtarrilaren 26an eta martxoaren 4an, 0:00etatik 24:00etara, bi lanegunetarako. Hala ere, bi egunetarako greba-eguna hasi dela ulertuko da, gaueko txandaren hasieran, 0:00ak baino lehen. Grebak honako hauei eragingo die:

- Adinekoei arreta emateko zentroak eta zerbitzuak
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko zentroak eta Zerbitzuak
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak
- Esku-hartze Sozialaren eremuko centro eta Zerbitzuak
- Telelaguntza Zerbitzuak
- Etxeko enpleguaren erregimenean sartutako sektorea

Grebaren helburua, deitzaile honen arabera, honako hau da: *gizarte-zerbitzu guztiak publiko egitea, langile guztiak subrogatuz; behar duten pertsona guztiei kalitatezko zerbitzua bermatzea; erabiltzaileek eta langileek gizarte-zerbitzuen konfigurazioan maila guztietan duten informazioa eta parte-hartzea indartzea; berehala, langileen lan-baldintzak nabarmen hobetzea; gizarte-zerbitzuen multzoa arautzea, erabiltzaileen eta langileen parte-hartzearekin; eta horiek guztiak bermatzeko behar besteko aurrekontu-hornidura ziurtatzea.*

ELA sindikatuak greba deitu du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zainketen alorrean, 2021eko urtarrilaren 26rako, eta lanaldi osoari eragingo dio. Grebak honako hauei eragingo die:

- Hirugarren adinekoen egoitzetako, etxebizitza komunitarioetako eta eguneko zentroetako kudeaketa publikoko eta pribatuko lantokiak;
- Etxez etxeko laguntzaren sektore publikoa eta pribatua;
- Esku-Hartze Sozialaren sektorea (adingabeentzako zentroak eta kudeaketa publiko eta pribatuko tutoretzapeko etxebizitzak; bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten kolektiboak)
- Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak eta zerbitzuak.
- Telelaguntzako zerbitzu publikoko langileak
- Etxeko langileak

Grebaren helburua *zainketen sektorean egiturazko aldaketa bat bultzatzea da. Horretarako, zaintza profesionalizatuek publikoak, duinak, unibertsalak eta doakoak izan behar dira*, eta helburu horiek lortzeko zenbait neurri eskatu dituzte.

Euskadiko CCOO sindikatuak greba deitu du, 2021eko urtarrilaren 25eko 22:00etatik 2021eko urtarrilaren 26eko 10ak bitartean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko langile, enplegatu publiko eta enpresa pribatu guztiak eta erakunde eta administrazio publiko guztiak hartzen ditu barne, baldin eta hurrengo eremuetan jarduten badute: *gizarte-zaintza eta -zerbitzuetan, hirugarren adineko egoitzetan, dibertsitate funtzionalean, etxez etxeko laguntzan, etxeko langileak, esku-hartze soziala aisia hezitzailea animazio soziokulturala, telelaguntza eta buru-gaixotasunak.*

Deialdia egin duen sindikatuaren arabera, grebaren helburuak honako hauek dira: gizarte eta zaintza zerbitzuak publiko egitea; ratioak handitzea kalitatezko zerbitzuak baldintza onenetan emateko; egun zerbitzua ematen dutenen baldintza soziolaboralak hobetzea, hitzarmen kolektiboak berrituz, pertsonala handituz eta langileen osasun-babesa hobetuz; gizarte eta zaintza zerbitzuak publikoak, unibertsalak, doakoak eta kalitatezkoak izateko finantzaketa bermatzea; etxeko langileen arauketa; LANEren 189 hitzarmena berrestea; europako eskubideekin bat datorren negoziazio kolektiborako eremu bat sortzea eta etxeko langileen hitzarmen sektoriala egitea; etxeko langileei langabezia bezalako prestazioak aitortzea, subsidioa 55 urte baino gehiagokoei.

UGT sindikatuak greba deitu du zerbitzu soziosanitarioen esparruan, 2021eko urtarrilaren 26rako, 00:00etan hasi eta 24:00 orduetan bukatuko dena. Deialdiak honako hauei eragiten die:

- Adinekoen egoitzak, eguneko zentroak eta etxebizitza komunitarioak.
- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuak
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko zentroak eta zerbitzuak
- Telelaguntza zerbitzuak
- Etxeko langileak eta zaintzaileak.

Sindikatu horren arabera, grebaren helburuak honako hauek dira: *zerbitzuek kalitatea eta lan-baldintzak hobetzea; gizarte zerbitzuen arauketa eskatzea; egungo kudeaketa pribatuaren modeloa aldatzea; zerbitzu sozialak publiko egitea eskatzea.*

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar dituzten neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo

abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Grebaren denbora eta lurralde eremuari dagokionez, bi lanaldi osori eragiten dio grebak, ez-jarraituak, hasi eta bukatu ordu ezberdinetan egingo delarik greba deitzailearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko guztietan.

Jarduera-eremuari dagokionez, nahiz eta bost greba-deialdi aurkeztu diren, horiek guztiek, de facto, zaintzaren eremuari eragiten die, izan ere, greba egiteko deia luzatu zaie lantoki publiko zein pribatuetan, adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan, eguneko zentroetan, desgaitasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan, etxeko laguntzan, telelaguntzan, adingabeen zentroetan eta tutoretzapeko pisuetan, eta arrisku-egoeran dauden pertsonen centro eta zerbitzuetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei.

Ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariek hartutako neurri eta gomendioen erdian egin dela. Hala, kontuan hartu behar da, 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Lehendakariarena, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko, alarma-egoeraren adierazpenaren esparruan, prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean batu eta eguneratzeko; eta baita Osasun Sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko AGINDUA ere, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.

Hala aipatu Dekretuan jasotako Eranskineko 23. puntuan nola aipatu Aginduko Eranskineko 4.3 puntuan jasotakoa, biak “Gizarte-zerbitzuetako zentroak, zerbitzuak eta establezimenduak” arautzen dituztenak, betebeharrak zehatz batzuk ezartzen zaizkie

egoitzetako eta eguneko zentroetako gizarte-zerbitzuei; antolaketa-, prebentzio- eta higiene-neurriak hartu behar dituzte langileei, erabiltzaileei eta bisitariei dagokienez, kutsatze-arriskuak prebenitzeko. Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan —Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoari buruzkoa berau— jasotako gainerako zerbitzuei dagokienez, ezartzen da ziurtatu beharko dela kutsatze-arriskuak prebenitzeko higiene-neurri egokiak hartzen direla.

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-Cov-2k eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo horietan. Horregatik, Osasun Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, egoitzetako eta zentro soziosanitarioetako SARS-Cov-2 koronabirusaren aurreko neurriak eta gomendioak zehazten dira. Honako hauek:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko protokoloa, 2020ko irailaren 22koa.
- IT-01. Egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak.

Adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen eta eguneko zentroen kasuan, ezinbestean neurri jakin batzuk ezarri behar dira horietako bakoitzean prestatutako kontingentzia-planak eta prebentzio-planak aplikatu daitezkeen osasun-agintarietara emandako protokoloetara eta araudietara jarraiki. Neurri horietako batzuk nabarmendu behar dira: egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako arkitektura- eta langile-sektorizazioak, egoitza-zentroetako erabiltzaileak tratamendu-kohorteetan sailkatzea, eta langileentzako politika bat ezartzea, zeinak berekin ekarriko duen norbera babesteko ekipamenduen erabilera estentsiboa izatea (inplikazio guztiekin) eta langileak beren kohortera mugatuta egotea.

Gizarte-zerbitzuak babes-neurrien multzo gisa daude eraturik, mendekotasuna duten eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitzeko gutxienezko baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoetara dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da ukatu honako hauetan lan egiten dutenen jarduera oso garrantzitsua dela gizartearentzat: egoitza-zerbitzuak (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), eguneko zentroak —arreta ematen baitiete desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituztenei—, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza, adingabeen etxebizitza komunitarioak eta egoitzak, eta esku-hartze sozialeko gainerako zentroak. Beraz, 2021eko urtarrilaren 26 eta 2021eko martxoaren 4ko lanaldiei eragiten dien greban sektore horretan gutxieneko zerbitzuak finkatu ezean, baliteke kalte larriak eragitea, eta, hartara, grebaren helburuak lausotuta geratzea; izan ere, pertsona batzuen osasuna eta segurtasuna arrisku bizian egongo bailitzateke.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko —hala badagokio— eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia baliogabetu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura eman dezaten ahalbidetuz, gutxieneko zerbitzuak ezartzeak murriztailea izan behar duela oinarritzat hartuta. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Azaldutakoaren ondorioz, greba-deialdi honi begira, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu behar ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza-arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Adinekoen egoitzak eta eguneko zentroak, eta desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dioten zentroak eta zerbitzuak «ezinbestekoak» dira, alde aurretik aipatu ditugun araei jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekoak dira, osasun-gabezia larriak dituztenak, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar

dutenak, autonomiari eusteko eta legeak onartutako mendetasun-maila guztien arretarako; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1 artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarrizotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-
eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituena, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Katetoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetza-unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetza-zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaitzuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako zentro mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikokoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-

gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolana ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integral eta integraturako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonari ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Zuzeneko arreta-zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otorduzerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi honetan bereziki, higiene pertsonala; zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta-zerbitzuen» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

Egungo testuinguruan, osasun-agintariek egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte hainbat betebeharrak, lehendik egiten ziren funtsezko zerbitzuen artean sartu behar direnak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik datozenei buruz ari gara, tartean nabarmentzekoak sektORIZAZIOA eta LANGILEEN TALDEEN ARABERAKO BANAKETA. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzien kontrolarekin eta taldeko edo/eta banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako zeregin berriak sartu dira, bai eta egoitzen egoera klinikoaren gaineko kontrola ere (tenperatura kontrolatzea, sintomak behatzea, higiena areagotzea eta abar).

Lehen azaldu dugun bezala, pandemiaren egoerak eta osasun-gomendioek bideraezin egingo lukete gaur egun % 100etik beherako zuzeneko arreta ematea; zerbitzu horien erabiltzaileak kutsatzeko arrisku-egoeran jarriko lirarteke. Horren ondorioak azken hilabeteetan bizitzen ari gara.

6) Zuzeneko arreta zerbitzuez gainera, beste mota bateko arreta zerbitzuak ere ematen zaizkie, maila apalagoan izan arren. Zerbitzu horiek, zeharka, aurreko zerbitzuen mende daude (sukaldaritza, garbiketa, arropa-garbitzea...), edo egoitza-instalazioen eta -

zerbitzuen koordinazioari, mantentzeari eta segurtasunari laguntzen diote. Aurreko aginduetan, zerbitzu horien intentsitatea eta horiek egiteko langileen kopurua arreta zuzenekoak baino txikiagoak izan dira.

Alabaina, arestian azaldu bezala, SARS-Cov-2 koronabirusak ekarri duen egoera kontuan hartuta, osasun-agintariek neurri eta gomendio jakin batzuk onartu eta argitaratu dituzte. Garbiketa eta arropa-garbitzea bezalako zeharkako zerbitzuei ere badaude lotuta neurri eta gomendio horiek, eta aurreko deialdietan langileen kopurua eta zerbitzuaren emakidaren intentsitatea txikiagoak izan badira ere, gaur egungo egoera eta osasun-neurri eta -gomendioak ikusita, nabarmen handitu behar dira.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki da nabarmentzekoa garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazaletan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gupil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariek: bisita horiek mugatu dira, eta bertarutzen diren pertsonen datuak jaso behar dira; gainera, tenperatura hartu behar zaie bisitariei.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginei dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxienerako zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzerazinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela

larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna. Eremu horretan, halaber, salbuespenetzko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoen kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun-zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira. Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

10) Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higieena zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

11) Garbitegi-zerbitzuetan, halakorik duten zentroetan, mihiseria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da. Zerbitzu hori indartu eta areagotu egin behar da, osasun-agintariak adierazi duten bezala, koronabirusak ekarri duen epidemia kontrolatu ahal izateko arreta berezia jarri behar delako arropak garbitzeko zerbitzuan. Ondorioz, arropa-garbitegian lan egiten duten pertsonen kopurua % 90eraino igo beharko da eta, horrela, osasun-agintariak gomendatutako moduan eman ahal izango da zerbitzua.

12) Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienez hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxienezko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin dezaketen ezustekoei erantzuna eman behar zaie, komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak bermatzeko.

13) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxienezko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

14) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskinen 10. Zehaztapen Teknikoak (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu denak baina, hala ere, oraindik ere aplikagarria denak, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera) ezartzen ditu gizarte-baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

15) Aurreko 6. puntuan zehazten diren zerbitzu horietarako (sukaldaritza, garbiketa, arropa-garbitegia eta harrera-atezaindegia) zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren ezinbestekotasunaren irizpide bera aplikatu behar zaie, baita ere, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroe, zeinetan, oro har, langile gutxiago izaten baitira egoitzetan baino; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da).

Eguneko zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroe eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroe dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan ezinbesteko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendetasun-egoeran dauden pertsonen garraioa, horien desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako ezinbesteko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira mugikortasun ahalmenara egokitutako bestelako garraio-bideen bitartez egin. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritzak honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdirako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduekin lotuta eman baitzen, eguneko zentroek ematen duten zerbitzuan sartzea bermatzen duelako garraio

mota hori ezinbestekoa zela onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen hori arrazoitu beharra zegoela «zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik», eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela-eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri % 100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraibiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

16) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat etorriz, eta guztia laburbiltze aldera, 2021eko urtarrilaren 26 eta 2021eko martxoaren 4rako deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «zuzeneko arreta zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, inguruabar horiek guztiak baloratu dira, baita, besteak beste, 1288/2017 eta 873/2018 jurisdikzio-babeseko errekursoetan emandako epaiak ere. Aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau adierazten du: «Kontuan hartuta sektorearen berezitasuna nahiz zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasuna, justifikatuta dago gutxieneko zerbitzuak finkatzeko orduan prebentzio-irizpideen arabera jardutea, Bizkaiko sektorearen greban Salaren hainbat aurrekaritan baloratu zirenak bezalako egoerak sor ez daitezen. Egoera horiei buruzko epai guztien lekuko, Jurisdikzio Babeseko 1288/2017 Errekurtsuan ezarritakoa aipatzen dugu».

Etxeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Barne hartzen ditu laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarritzko jarduerak zuzenean egiteko arreta-zerbitzuak, hala nola ohetik jaikitzea eta oheratzea, janzteia, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan-etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gain, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, zerbitzuaren xedek lortzeko beharrezkoak direnak, bai eta etxetik eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara joaten lagundu ere. Zerbitzu horien onuradun dira, maila ezberdinetan, bakarrik dauden edadetuak edo mendekotasun-egoeran daudenak, eta, beraz, babes berezia jaso behar dute, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizirako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak bermatze aldera. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu.

Halaber, telelaguntzaren zerbitzu publikoan greba deialdia egiteko, Gobernuak dagozkion neurriak hartu behar ditu, arretarako ematen dituen funtzesko zerbitzuei eusten zaiela ziurtatzeko. Hori guztia, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, bere 15. Artikuluan ezarritakoari jarraiki, non telelaguntza zerbitzua jasotzen den; eta baita abenduaren 5eko 12/2008 Legea ere, zeinak bere 22. Artikuluan prestazio eta zerbitzu sozialen katalogoa ezartzen duen, eta bertan, lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuetan telelaguntza zerbitzua jasotzen da, eta 40.3 artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio aipatu prestazio eta zerbitzuen hornidura. Greba honetarako, gutxieneko zerbitzu gisa, Agindu honetako Ebazpenean zehazten diren langileak eta zereginak ezarri dira, deien erregistroaren funtzioa mantenduz, zeina ezarritako gainerako eginkizunei hertsiki lotuta dagoen, izan ere, zerbitzuaren hartzaileak nahiz zerbitzua bera kontuan hartuta, ezinbestekoa da. Eremu honetan aurreko Aginduetan ezarri ohi ziren gutxieneko zerbitzuei dagokienez, kontuan hartuz egun zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileak 57.805 direla (hau da, 2011. urtetik %139 handitu dira), nahiz egungo plantillaren dimentsioa eta zerbitzuaren antolakuntza, beharrezkotzat jo da gaueko lanaldian 2 langile gehitzea, baita unitate mugikorreko (UMT) teknikari 1 ezartzea ere goizeko txandan Donostiako lan-tokian, eta UMTko Gainbegirale Teknikari bat arratsaldeko txandan.

Adingabeen egoitzei, gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonentzako egoitzei, etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroein dagokienez, egoiliarren bizia, osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko dira, eta, horrenbestez, greba egin ahal izateko, eskubide konstituzional horiek bermatzen duten gutxieneko zerbitzuak mantenduko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko autoak ordeztu egin zituen bakarrik dauden adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako lanegun bateko

gutxieneko zerbitzuak –2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez jarriak–, eta, horien ordez, jaiegun batekoak ezarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 epaiaren bidez, deuseztat jo ziren 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan lagunduta dauden adingabeentzako egoitzetarako ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak –lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren–, eta bidezkotzat jo zen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoak izan behar zirela.

Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Legegintzako Errege Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren) 10.2 artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako enpresa-elkarteei, sindikatuen ordezkariari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailari, EUDELi eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiketako Sailari, alegazioak egin ditzaten erkidegoarentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) 2. artikuluan Lan eta Enplegu Saila sortu du, eta haren 6. artikuluan lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko eskumena esleitu dio. Bestalde, Xedapen Iragankor Bakarraren arabera, Azken Xedapenetatik Lehenean aurreikusitakoa betetzen den heinean, indarrean jarraituko dute Gobernu Lehendakariaren eta Gobernu Sailer egitura eta eginkizunak zehazten dituzten arau organikoek. Ondorioz, indarrean jarraitzen du apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia Sailer egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak. Sail horrek bere eginkizunen artean dauka, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetutako eskumenaren bidez, beharrezko neurriak zehaztea gizartearentzako funtsezko zerbitzuak mantentzen direla bermatzeko, zerbitzu publikoak emateaz edo beharrian atzera ezina edo aitortua asetzeaz arduratzen diren enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten grebetan.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- 2021eko urtarrilaren 26 eta 2021eko martxoaren 4rako, lanaldi osoan, bi egunetarako, greba gaueko lanaldiarekin hasten delarik, 0:00 orduak baino lehen, eta aipatu egunetan 24:00 orduetan amaitzen delarik, greba egitera deitu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zerbitzuen alorrean zerbitzuak ematen dituzten pertsonala, hala kudeaketa publiko nola pribatuko hurrengo egoitzetan: adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitario eta eguneko egokitzetan; desgaitasuna duten pertsonen arretarako centro eta zerbitzuetan; etxez-etxeko laguntzan, hala sektore publiko zein pribatuan; Telelaguntza zerbitzuan; eta Esku-Hartze sozialaren sektorean (adingabeen egoitzak, bazterketa arriskuan dauden pertsonen egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta esku-hartze sozialerako gainerako zentroak, hala kudeaketa publiko nola pribatukoak, eta bazterketa arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten kolektiboak). Horiek guztiek greba-eskubidea erabili ahal izango dute, beti ere, hurrengo idatz-zatietan ezartzen diren funtsezko prestazioak eta horien ondoriozko gutxienezko zerbitzuak ematen diren heinean.

BIGARRENA.- Gutxienezkotzat jotzen diren zuzeneko arretako zerbitzuak ezinbestean emango dira eguneko zentroetan, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan, hezkuntza bereziko zentroetan eta mendetasun edo desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko beste zentro eta zerbitzu batzuetan, egoiliarren beharrianak kontuan hartu eta haien bizitza eta osasuna bermatu daitezten. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrek ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Orobat, honako hauetan ematen diren gomendioak bete behar dira: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak idatzi dituen Zentro soziosanitarioetan COVID-19 zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloan (irailaren 22koan) eta Egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurrien Instrukzio Teknikoan (IT-01) ezartzen diren gomendioak, eta egoitza bakoitzak aurrekoak betetze aldera prestatzen dituen Kontingentzia-planetan ezartzen direnak. Era berean, arreta zuzeneko oinarrizko zerbitzuak ezarri dira gutxienezko modura.

Jarraian aipatzen diren langileek ondoren zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduerak horiek:

1. Oro har:

1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehunekoa 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxienezko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zatikizko zenbaki bat bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

1.4. Medikiak bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez badu, behintzat, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei ematea ahalik eta modu simple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak erabiliz eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi duten ahalik eta langile gehienek eskubide hori baliatu ahal izan dezaten. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

1.5. Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higie pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek —betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, indarreko araudian ezarritakoa betez.

1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun-gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaletan, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

1.7. Garbitegi-zerbitzuan honako lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

2. Egoitzetako gerokultoreak:

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, bigarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

3. Eguneko zentroetako gerokultoreak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, bigarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraibideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

4. Etxebizitza komunitarioetako gerokultoreak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, bigarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen % 100ek egingo du lan, ohiko zereginak % 100ean betetzeko eta osasun-agintariek egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, bigarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

7. Garbitzaileak:

Langileen % 100ek lan egingo du. Bigarren ebazpen-zatiko 1.6 apartatuan azaltzen diren zereginak egingo dituzte.

8. Arropa-garbitegiko langileak:

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren % 90ean emango da zerbitzua, bigarren ebazpen-zatiko 1.7 apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

9. Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzerazinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

10. Harrera-atezaindegiko langileak:

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezten.

HIRUGARRENA.- Etxez etxeko laguntzaren sektorean honako zerbitzu hauek emango dira; alabaina, II. eta III. mendekotasun-gradua duten pertsonen bakarrak:

- i. Janari-zerbitzua emango da. Ahal dela, aurretik egindako edo aurretik egiten diren elikagaietara joko da.
- ii. Zerbitzu hauek emango dira: eguneroko higiene pertsonalean lagunduko da, bai eta komuna erabiltzen ere, eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketa egiten; jaikitzen, oheratzen eta janzten lagunduko da, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratuko da.
- iii. Hitzordua aurretik ezarri bada eta atzeratu ezin badaiteke, osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.
- iv. Halaber, eguneko zentroetara joaten lagunduko zaie.
- v. Ohean dauden pertsonen dagokienez, behar diren jarrera-aldaketak egingo zaizkie.

LAUGARRENA.- Telelaguntzaren sektorean, hurrengo zerbitzua mantenduko da:

i. Teleoperadoreak: 6 langile goizeko txandan, 6 langile arratsaldeko txandan, **eta 2 langile gaueko txandan**, hurrengo zerbitzuak egiteko:

- Deiak jaso, kudeatu eta erregistratzea (telefonikoak eta pultsazio bidezko alarmak), larrialdiak hartatzea eta kudeaketa osoa.
- Sartzen diren deiak jaso eta erregistratzea eta larrialdiekin edo premia sozialekin lotuta dauden dei guztiak igortzea.
- Ordutegi horien barruan ezinbestekotzat jotzen diren Agendak igortzea (Gogorarazte-oharrak)
- Telemonitarizazio-erabiltzaileen deiak kudeatzea, arrisku-pazientetzat hartzen direlako, eta horiek Osasun Kontseilura bideratzea.
- Unitate Mugikorrek mobilizatzea, deia eroriko baten ondoriozko larrialdia bada.

ii. Gelako gainbegiralea: langile 1 goizeko txandan eta langile 1 arratsaldeko txandan, hurrengo funtzioak egiteko:

- Alarmak Jasotzeko eta Larrialdieen Arretarako zerbitzua mantentzeko.

iii. Unitate mugikorreko teknikaria: 3 langile goizeko txandan eta 3 langile arratsaldeko txandan, Bizkaiako lan-tokian; **langile 1 goizeko txandan eta langile 1 arratsaldeko txandan, Donostiako lan-tokian**, hurrengoak egiteko:

- Lesiorik gabeko erorikoen arreta emateko.

iv. UMTko Gainbegirale Teknikoa: langile 1 goizeko txandan eta **langile 1 arratsaldeko txandan**, soilik, hurrengo funtzioak emateko:

- Larrialdiei aurre egiteko eta Alarmak Jasotzeko Zerbitzuak mantentzea.

BOSGARRENA.- Jaiegun bateko ohiko zerbitzuak emango dira babesik gabe dauden adingabeentzako egoitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan, baztertuta egoteko arriskuan dauden egoitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan, adingabeen heziketa-zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan, eta esku-hartze sozialeko zentroetan.

SEIGARRENA.- Greba-eskubidea erabiltzen ez duten pertsonak emango dituzte arestian aipatutako zerbitzuak, salbu eta langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean.

Langileen ordezkarietara entzun eta gero, enpresetako nahiz administrazio publikoetako zuzendaritzak izendatuko dituzten langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, agindu honetan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

ZAZPIGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu zerbitzu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatutako joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

ZORTZIGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

BEDERATZIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 22an.

Idoia Mendia Cueva
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA